

7. Tekniker*

TEKNIKER ikerketa teknologikoa lantzen duen erakundea da. Juridikoki, irabazi-asmorik gabeko fundazioa da, 1981. urtean eratua. Fundazioaren estatutuetan ezarrita dago konpromisotzat hartu duela industri sarearen lehiakortasuna eta zerbitzuak hobetzen laguntzea teknologiaren arlotik.

Bere ibilbidean zehar, TEKNIKER fundazioa fabrikazioaren teknologien (*manufacturing*) zentro gisa izan da ezaguna. Gaur egun bere betiko eskumen-eremutik kanpo hedatuta dago eta mikroteknologiaren zentroa ere bada; arlo horretan arreta berezia ematen die zehaztasun-ingeniaritzari eta mikrofabrikazioari.

TEKNIKERek lantzen dituen arlo nagusiak honako hauek dira:

1. Automozioko laguntzailea.
2. Makina-erreminta eta osagarriak.
3. Medikuntza-kirurgia.
4. Aeronautika eta espazioa.
5. Ekipamendu-ondasun mekanikoak.
6. Moldeak eta matrizeak.
7. Elektronika industrial eta kontsumokoa.
8. Ekipamendu zientifikoa.

TEKNIKERen egiturari buruz, honako hauek dira bere departamentu teknologikoak:

1. Mekatronika eta zehaztasun-ingeniaritza.
2. Mikro eta Nanoteknologiak.
3. Fabrikazio-prozesuak.
4. Produkzio-ingeniaritza.

Datu ekonomikoei dagokionez, 2003. urtean, 11.528 mila € fakturatu zituen.

Diru-sarrerek honako eskemari jarraitzen diote. 33. irudian ikus daitezke TEKNIKERen bezero motak.

Pertsonalaren arloan, 2003an 199 enplegatu zituen TEKNIKERek, horietatik 54 bekadun. Azken urteotako pertsonalaren eboluzioa 34. irudian agertzen da.


Langileen maila akademikoa nola banatzen den adierazten du 35. irudiak:

AURREKARIAK


TEKNIKERen lehen urratsetan ez zegoen plan berezirik euskara sustatzeko, baina baziren zenbait ekintza testimonial, adibidez, garai hartan publikatzen zen aldizkako buletineko editoriala euskaraz ere argitaratzearena.

1988an, eraikin berria egin zenean (Otalola hiribideko 20an), bi hizkuntzetan (eus-

33. irudia. TEKNIKERen sarrerek



* Egilea: Rafael Enparantza Agirre (TEKNIKER. Produkzio-ingenieritza departamentu eta euskara-koordinatzailea).

34. irudia. **TEKNIKERen langileak**


karaz eta gaztelaniaz) ipini ziren departamentu eta sailen izenak, baina euskarari lehenbizi eman zitzaion.

1992an, euskaratze-plan baten lehen saioa egin zen. Horren ondorioz erabilera arrunteko inprimaki batzuk euskaratu ziren (baimen-eskaerak, bidaien deskarguak...) eta euskarazko eskolak abian ipini ziren. Plana baino, jarraipenik gabeko momentuko ekimen bat izan zen eta urte gutxiren buruan eskolak antolatzeari utzi zitzaion.

Ez zen egiturarik sortu euskara sustatzeko alde eta ardurak inoren gain ez zirenez, esan bezala, ahaleginak huts egin zuen.

2003an euskara sustatzeko plan bat aurrera eramatea erabaki zen. Momentu hartan, TEKNIKERen zegoen euskararen egoera honelaxe labur daiteke:

- Departamentu eta sail gehien izenak bi hizkuntzetan (euskara lehenbizi). Departamentu edo sail berri batzuk erdaraz hutsez. Beste batzuk hiru hizkuntzetan (ingelesez).
- Inprimaki batzuk bi hizkuntzetan (ez beti euskaraz lehenbizi).
- Buletinaren editoriala, euskaraz ere bai.
- Euskarazko eskolarik ez.
- Megafoniako abisua bi hizkuntzetan: lehenbizi erdaraz.

35. irudia. **Langileen maila akademikoa**

Euskararen jakite-mailari dagokionez, inkesta bat egin zen plana martxan jarri aurretik hura neurtzeko. Langile bakoitzari galdeztzen zitzaion euskara ba ote zekien. Hiru maila bereizi ziren: bazekitenak, erdi-mailakoak eta ez zekitenak. Euskara zekitenak, 2003an, %36 izan ziren eta erdi mailakoak %30.

PLANAREN ARRAZOIAK

Esan bezala, 2003an euskara plan bat aurrera eramateko nahia sortzen da. Plana aurrera eramateko ekimena TEKNIKEReko zuzendaritzatik etorri zen. Nolabait, Zuzendaritza jabetu da Eibarren, baita Euskal Herri osoan ere, euskararen aldeko inizatiba ugari hartzen ari direla etengabe eta TEKNIKERek, alor horretan ere, ekarpena egin dezakeelako. Horren ondorioz, plan baten beharra sumatu zen eta, horrela, Elhuyar Aholkularitzarekin jarri zen harremanetan.

Zuzendaritzak langileei jakinarazi zien euskara-plan bat abian jarriko zela eta, oro har, ideiak harrera ona izan zuela esan daiteke. Plana diseinatzeko, esan bezala, Elhuyar Aholkularitzaren kolaborazioa eskatu zen. Planaren diseinua garatzeko eta zehazteko lantalde bat bildu zen Elhuyarko teknikariek, gerora, Euskara Batzordea osatuko zuena.

Talde hau TEKNIKEReko zuzendari laguntzaileak gidatzen zuen eta departamentu gehientsuetako pertsonak zeuden bertan.

HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Planak helburu oso konkrituak finkatzen ditu 4 arlo nagusiotan:

- Irudi Korporatiboa.
- Barne-harremanak.
- Kanpo-harremanak.
- Giza Baliabideen kudeaketa.

Helburu bakoitzari epe bat ezartzen zaio eta Euskara Batzordeko pertsona multzo bat arduratzen da hura betearazten.

Elhuyarrekin batera landutako planaren segimendua egiten da hileroko biltzen den Euskara Batzordean.

Hasieran bost lantalde osatu ziren (lau helburuak + dokumentazioa itzultzeko taldea) baina plana garatzearekin, taldeak desegin egin dira eta helburu konkritu bakoitzean arduradun indibidual bat izendatzen da.

Beraz, hilabetez hilabete helburu konkritu horien betetzearen segimendua egiten da.

Planaren helburu konkrituez gain, helburu orokorrak zehaztu ziren eta horien artean azpimarratu zen, lehenetsunez zegoenez, ahozko erabilera handitzeak izan behar zuela Planaren emaitza nagusia, bai kanpoko harremanetan, baina, batez ere, TEKNIKER barrukoetan. Ez zaio hainbeste inportantziarik ematen idatzizkoari, komunikazio-muga handiagoak ezartzen baititu.

BALIABIDEAK

TEKNIKEReko zuzendaritzak aurrekontu bat onartzen du urtero Euskara Plana aurrera eramateko.

- 2003. urtean: 13.000 €.
- 2004. urtean: 82.000 €.

- Aurrekontuan, honako hau sartzen da:
- Hasierako plana egitea (Elhuyar, 2003an).
 - Euskara Batzordeko kideen orduak.
 - Euskarazko eskoletara joaten direnen orduen erdia.
 - Itzulpenak.

Aurrekontuaren zatirik handiena euskarazko eskoletara joaten direnen orduen kostua da.

OZTOPO NAGUSIAK

Ez da plana martxan jartzeko oztopo handirik aurreikusi. Inportanteena (hala uste da, behintzat) euskararen jakite-maila baxua da. Gogoratzeko, TEKNIKERen euskaraz dakitenak %36 dira; Eibarren, berriz, ehuneko hau %50en dago. Areago, euskararen erabilera asko jaisten da eskualdean (%16). TEKNIKERen, pentsatuta badago ere, ez da erabilera-inkestarik egon; beraz, ezin jakin daiteke oraingoz jakitearen eta erabiltzearen arteko diferentzia Eibarren jaso denaren antzekoa ote den ala ez.

Bestalde, badira zenbait barne-erresistentzia, baina ez liskarrak sortzeko modukoak. Plana abian jarri zenetik urtebete pasa ondoren, esan daiteke ez dela konflikto-iturri izan inongo aldetik.

EMAITZA NAGUSIAK ETA BALIO ERANTSIA

Orain arte lortu diren helburuak:

- Bi hizkuntzetan egiten diren errotulazio, dokumentu, iragarki edo dena delako guttietan euskarari lehentasuna ematen zaio.
- Barne-errotulazioa ele bietan.
- *Web* gunea euskaraz eta hasierako hizkuntz aukera ematen da (erdarazkora zuzenean sartu gabe).
- Telefonozko eta sarrerako harrera euskaraz eskaintzen da lehenbizi.
- Finkatu da, dagokion Gidan, bertan sortzen diren programa informatikoen hizkuntz aukera izan behar dutela.
- Finkatu da, dagokion Gidan, aplikazio informatikoen bezeroei saltzerakoan, hizkuntza baten baino gehiagotan eskaintzea.
- Harrera-protokoloa euskaraz.

- Kontratazio berriak: ezaugarri berdinekin euskara baloratuko da.
- Lanpostuak: harrerako pertsonak euskara jakin behar du.
- Harrera-protokoloan Euskara Planaren berri ematen da.
- Barne-funtzionamenduko Gida euskaraz.
- Gestio intraneta euskaraz.
- Euskara hobetzeko aplikazioak: hiztegien estekak, Elhuyarren enpresa-eskuliburua.
- Zuzendaritzako pertsonen komunikazio jeneralak euskaraz. Iragarki-tauletan agertzen diren Zuzendaritzako komunikazioak euskaraz.
- Buletin osoa euskaraz.
- Memoria osoa euskaraz.
- Pertsona-txartelak euskaraz.
- Papeleriako osagaiak euskaratzen hasita eta instrukzioak emanak daude.
- Ferietako panelak: euskarari presentzia ematen hasi zaio.
- Euskarazko eskolak: 37 pertsona hasi dira, maila diferentetan, euskarazko eskolak hartzen.

BALIO ERANTSIA: Euskara bultzatzeak duen funtzio sozialaz gain, langileen gogobetetzea handitzea balio erantsi inportanteztat jotzen da.

ETORKIZUNEN DESAFIOAK ETA PAUSOAK

Idatzian aipatu diren bezala, etorkizuneko helburuak hauek dira:

- Euskararen erabiltze-maila TEKNIKER barruan igotzea.
- Langileen inplikazioa eta parte-hartzea handitzea. Orain arte, Euskara Batzordeko kideek ez beste inork ez du planari buruz iritzia emateko aukerarik izan, informalki ez bazen. Hortaz, beste gai eta eztabaidak bideratzeko egin ohi dugun moduan, foro bat jarri da abian. ■

Euskara enpresaren kudeaketan: kasu honen jatorria

Ezagutza Klusterraren azalpena

Agerikoa da enpresen jardunean euskara erabiltzeak onura asko dakarkiola organizazioari, eta bere ekoizkinen balioa areagotzeaz gain bezeroei eskaintzen dien zerbitzua hobetzeko lagungarri dela.

Ezagutzaren Klusterrak enpresa-munduko aldaketen abangoardia izan nahi du. Unibertsitatearen, enpresaren, aholkularitza-enpresen eta erakunde publikoen arteko zubi izatea saiatu gara. Ezagutzaren Klusterrak erronka hau bere gain hartu du eta euskararen erabilpena erakundeetan sustatzeko ekimen ezberdinak burutu ditu denboran zehar. Besteak beste, 1998tik gaur egun arte kudeaketa aurreratutako enpresei buruzko 22 kasu euskaraz idatzi dira eta 2001ean kudeaketaren arloan euskarazko terminologia-glosarioa egin zen Klusterraren ekimenaz.

Ildo hau jarraituz, irekitako bidea lantzen segitzea erabaki genuen. Ezagutzaren Klusterreko bazkide sarean euskara-planetan ari ziren hainbat enpresaren esperientziak trukatu eta elkarren arteko lorpenen berri izatea hasieran eta aurrerantzean elkarlanean jarduteko asmoz, *Euskara eta Kudeaketarako Foroa* sortzeko premia hauteman zen Klusterretik, eta azkenean martxan jarri zen 2003 urtean.

Foroaren helburu nagusiak euskara kudeaketaren arloan erabiltzeak lanari ematen dion balio erantsia aztertzea eta hori jakinaraztea, kontzeptuak eta egoerak argitzea eta esperientziak trukatzeko, eta ikuspegi eta metodo berriak elkarrekin eta elkarrengandik ikastea izan dira.

Foroko partaideek 2003ko abendutik 2005eko martxora arte egin zuten lan. Guztira, 20 erakunde ezberdinetako 37 pertsonak parte hartu zuten: ELHUYAR eta EZAGUTZAREN KLUSTERRA erakunde dinamizatzaile gisa eta AZTI, BATZ, EITB, EMUN, MONDRAGON ESKOLA POLITEKNIKOA, ESTE, EUSKO JAURLARITZA, GAIKER, IDOM, IKERLAN, IMH, LABEIN, MCC, ROBOTIKER, TEKNIKER, UZEI, VISESA, eta EHU partaide gisa.

Hauetaz gain, beste erakundeak momentu zehatz batzuetan foroarekin bat lanean aritu ziren: Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila; Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza; Bizkaiko Foru Aldundia, Kultura; Gipuzkoako Foru Aldundia; EHU-ko Euskara Errektoreordetza; Ekonomisten Euskal Elkargoa; Energiaren Euskal Erakundea (EEE); ABB Niessen; AHIZE; Danobat; Elkargi; Euskarazko Komunikazio Taldea; Kondia; Maier Koop. E.; MCC; Pasaiaiko Portua eta Urola Kostako HITZA.

Hona hemen Foroan parte hartu zuten pertsonen zerrenda: Leire Arrizabalaga eta Igor Lezamiz (dinamizatzaileak), Igor Álvarez, Blanca Arosa, Gorka Aurre, Itziar Azkue, Edurne Bilbao, Rafael Enparantza, Urrate Etxaburu, Alaitz Etxeandia, Ander Etxeberria, Amaia Gabilondo, Nerea Ganboa, Ainhoa Garayar, Nikolas Gardner, Izaskun Ipiñazar, Asier Larrinaga, Agurtzane Loidi, Xabier Manterola, Jesús Matey, Ibon Muguruza, Itziar Navarro, Joxe Ramón Elortza, Ainhoa Saitua, Ibon Serrano, Joxe Mari Ulazia, Mikel Urdangarin, Karmelo Uriarte, Xavier Uriarte, Arantzazu Urtzelai, Arrate Zamakola, Joxean Zapirain, Amaia Zarrabeitia, Eneko Zarraoa, Jon Zuazabeitia, Karmele Zuazubiskar eta Miren Zubizarreta.

Pertsona horien lanaren fruitu gisa kaleratu zen 2005ean '*Euskara enpresaren kudeaketan. Gakoak eta esperientziak*' izeneko txostena. Txosten honetan aztertzen diren gaien artean egungo egoeraren diagnostikoa, euskararen balio erantsia, euskara kudeaketan txertatzeko gakoak, eragileak eta baliabideak azpimarratzekoak dira. Honez gain zortzi esperientzia praktikok osotzen dute informea: Batz S. Coop, EITB, ESTE/EUGT, IMH, Labein Fundazioa, Mondragon Goi-Eskola Politeknikoa, Tekniker eta Euskal Herriko Unibertsitatea. Agiri honetan horietako bat aurkeztu da; besteak aurkituko dituzu dokumentu honetatik ateratakoan.

Oharra: Txosten osoa eskuratzeko Ezagutzaren Klusterraren Web orrian eska daiteke. <http://clusterconocimiento.com>